

# BEGOÑAZPI

## ASTEKARIA



2023ko zezeilaren 10a

ZIRIKIÑA PROGRAMA BUELTAN DA

# ADISKIDETASUNA BAINO ASKOZ GEHIAGO



Gehiago

**PINTURA JARDUERA**

**SASTAR GITXIAGO!**

**TALOKAK**



# ZIRIKIÑA PROGRAMA, BARRIRO MARTXAN



Pandemia sasoiko ikasturte bietan bertan behera geratu ostean, barriro dago martxan ZIRIKIÑA programa. Ikasketa zerbitzu programa barruan, DBH4. mailako ikasleek Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei laguntzeko irizpidea dabelarik, astean behin, ordu batez zerbitzua osatu beharko dabe. Ez dago guri irakatsitakoa besteen esku jartzea baino jardun politagorik!



# SASTAR GITXIAGO BEGOÑAZPIN!



Haizea eta Aitzol, zorionak jorratu dozuen ekimenagaitik! Goizeko hamaiketakoa hartu ostean jolastoki eta inguruetan sortzen dan zikinkeria zenbatekoa dan ikusi eta aztertu ondoren, zaborra saihestu, batu eta garbitzeko, talde boluntarioak sortu dabez.



# 'IZAN ZIRALAKO GARA ETA GARALAKO IZANGO DIRA'

Gure ohiturak, gure historia. Lehen Hezkuntza 4. mailako ikasleek historia, kultura edo gastronomia landu eta ikasi daberen proiektua 'Izan ziralako gara eta garalako izango dira' da. Modu praktiko, entretenigarri eta motibagarrian egin dabe. Oraingo honetan, taldea egin dabe.



# HEZKUNTZA EZ-FORMALEKO PINTURA JARDUERA



Ikasturte honetan, hezkuntza ez-formaleko jarduerak barriariko bat, pintura izan da. Ekimen honetan, umeei tresna eta material desbardinak erakutsi, azaldu eta emoteaz gain, honeekaz esperimintatzeko eta sortzeko modua be emoten jake. Zenbat gozatzen daberen gure gaztetxoek artelanak sortzen!

